



Arartekoaren 2020R-427-20 Ebazpena, 2020ko ekainaren 29koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko baztertu duen eskaera bat berrikusteko.

Aurrekariak

1. Herritar baten kexa jaso zuen Arartekoak izapidetzeko, ez zegoelako ados "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko egindako eskaera bat ukatzeko Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkararen erabakiarekin, bi aldiez ere ukatu zitzaiona.

Kexagileak kexan azaldu duenez, 2013an bikotekide ohiarengandik dibortziatzeko izapideak egiten ari zen. Era berean, adierazi zuen "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskaera egin zuenean genero-indarkeriaren biktimaren egiaztagiria zuela, indarrean zegoen babes-agindu batekin, zeinaren arabera bikotekide ohiak ezin zuen biok zuten etxebizitzan bizi. Hala ere, bikotekide ohiaren arazo ekonomikoen ondorioz, ez zen agindua bete eta familia-etxebizitzan instalatu zen. Hain zuzen ere, hori dela eta, kexagileak Arartekoari jakinarazi zion merkatu libreko etxebizitza bat alokatzea erabaki zuela, erasoak ekiditeko.

2. Ondorioz, kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko izapideak abiarazi zituen, dagokion udaleko gizarte-zerbitzuen laguntzarekin.

Familiarena ez zen etxebizitza bat alokatzeko premiaz egiaztatu ondoren, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskatu zuen. Lehenengo a 2018ko maiatzaren 23an eta bigarrena 2018ko irailaren 4an.

Bi kasuetan, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan eskaera osatzeko eskatu zuen, eta Hain zuzen ere, bigarren eskaeran honako hau aurkezteko eskatu zitzaion kexagileari:

- *"Otros: Usted ha aportado una modificación de medidas de convenio de divorcio de junio de 2018 INCOMPLETA. Aportar modificación de medidas COMPLETA."*

Horri dagokionez, kexagileak adierazi zuen une horretan 2014ko apirilaren 7an sinatutako hitzarmen arautzailea baino ez zuela. Edonola ere, eskatzeko idatzia aurkeztu zuen, non hitzarmen arautzailean ezarritako baldintzak aldatzeko eskatu zuen. Hala eta guztiz ere, epaitegiaren behin betiko erabakia lortzeko zain zegoela adierazi zuen.





Azkenik, berriz esan zuen materialki ezinezkoa zela familia-etxebizitzan bizi; izan ere, genero-indarkeriaren biktima da eta erasotzailea etxebizitza horretan bizi da modu iraunkorrean.

3. Hala eta guztiz ere, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek bigarren eskabidea ukatzea ebatzi zuen. Hona hemen ebazpenean adierazitako arrazoa:

- *“Ez betetzea honako baldintza hau: eskaera egin baino bi urte lehenagotik etxebizitzak ez edukitzea”.*

Erabaki horren ondorioz, gainera, Lanbideko zuzendari nagusiak ebatzi zuen kexagileak 3.803,33 euro itzuli behar zituela, haren iritziz ez zituelako etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko betekizunak betetzen, ez baitzen “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan etenik gabe inskribatuta egon, eta hori derrigorrezkoa zen.

4. Azken finean, kexagileak (babes-agindu bat duen genero-indarkeriaren biktima eta aitortutako % 57ko desgaitasunarekin) Arartekoari adierazi zion ez zegoela ados Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak aurreko bi urteetan etxebizitzarik ez izateko betekizuna betetzen ez zuela pentsatzeko. Eta hori guztia uste zuelako familia-etxebizitzan bizitzea ezinezkoa zela epai judizial irmo baten bitartez egiaztatutako genero-indarkeriaren gertakarien ostean eta babes-agindu batek iraun bitartean.

Era berean, Arartekoari jakinarazi zion ez zegoela ados etxebizitzarako prestazio osagarria dela eta 3.803, 33 euro itzultzearekin, neurri handi batean, izan ere, sei hilerik behin egiaztatu ditu bizi zen etxebizitzaren alokairu-gastuak, zeina familia-etxebizitzatik urrun zegoen.

5. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzak-eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Arartekoak, bere idazkian, interesdunaren egoera helarazi zion sail horri, eta eskatu zion txosten bat bidaltzeko, eta, horren bitartez, azaltzeko zer arrazoi juridiko izan zituen kontuan Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko kexagilearen eskaerak ukatzeko.

Bestalde, ezer erabaki aurretik, Arartekoak gogoeta batzuk helarazi zizkion sail horri. Horiek ez errepikatzearen, geroago jasoko dira.

Amaitzeko, eta kexagilearen egoerari buruzko informazio gehiago lortzeko asmoz, Arartekoak dagokion udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuen lankidetzak eskatu zuen.

6. Lankidetzak-eskaerari erantzuteko, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzako administrazio eta zerbitzuaren arduradunak egindako txosten bat iritsi zen erakunde honetara, eta, bertan, azaldutako egitateak baieztatu zituen eta kexagileak





“Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko egindako bi eskaerak ukatzeko erabakia berretsi zuen.

Zehazki, hauxe jakinarazi zuen Arartekoari bidalitako erantzunean:

- *“Los motivos concretos por los que el Delegado Territorial de Vivienda de Bizkaia ha resuelto denegar la solicitud de inscripción de la promotora de la queja una vez que la reclamante acreditó la situación de violencia de género con una orden de protección en vigor son que no aporta la documentación solicitada el 13 de noviembre de 2018 desde la Delegación Territorial de Vivienda de Bizkaia.*

En su día aportó la sentencia de divorcio en cuyo convenio regulador los cónyuges acuerdan compartir el uso y disfrute del ajuar y hogar conyugal. Posteriormente aportó la 1ª página de la demanda de solicitud de modificación de medidas establecidas en convenio.

Por ello el 13 de noviembre de 2018 desde la Delegación Territorial de Vivienda de Bizkaia se le indicó que había aportado una modificación de medidas de convenio de divorcio de junio de 2018 INCOMPLETA y se le solicitó que aportara la modificación de medidas COMPLETA.

Al NO aportar este documento necesario para determinar a quién se le otorgada la vivienda y poder analizar, en consecuencia, la posibilidad de aplicar la excepción por carencia de vivienda, el 26 de diciembre de 2018 el Delegado Territorial de Vivienda de Bizkaia resolvió denegar la Inscripción como demandante de vivienda.”

7. Hortaz, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua), baita Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3. artikulua) ere, azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.
2. Babes publikoko etxebizitza bat legez okupatu ahal izateko, nahitaez eman behar da izena “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan.

Horren harira, 3/2015 Legearen 13. artikulua xedatzen du Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroa sortuko dela, eta horrek ordeztuko duela edo, hala badagokio, jarraipena emango diola aurretik existitzen zen



administrazio-erregistroari. Erregistro horren helburua izango da etxebizitza babestuen eskatzaileak ezagutzea; halaber, babes publikoko etxebizitzaren esleipena kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna izango da.

Bien bitartean, araudia garatuta ez dagoenez, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa da etxebizitza babestuen eskatzaileen kudeaketa eta kontrola egiteko lana egin behar duena.

Amaitzeko, ezin da alde batera utzi "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena ematea ezinbestekoa dela beste eskubide batzuk aitortu ahal izateko, ahal nola etxebizitzarako prestazio osagarria. Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 5.1.c) artikuluan honako hau eskatu da etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko: *"Etxebizitza alokatzeko eskatzaile gisa erregistro batean egotea edo egoteko eskatu izana Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebide zerbitzuan."*

3. Izan ere, zenbait baldintza eta betebeharrak bete behar dira "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena eman ahal izateko.

Horrenbestez, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko aginduaren II. kapituluak (aurrerantzean, 2012ko urriaren 15eko agindua) berariaz ezartzen du zein diren horiek eskuratzeko baldintza orokorrak eta zein izan behar den eskaera ororen eduki zehatza.

Alde horretatik, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitza nahiz lurzoruen arloko finantza neurriei buruzkoaren, 17 artikulua ezartzen duenez, babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko, bizikidetzaren unitateko kideek ezin dutela etxebizitzarik eduki jabetzan, azalera-eskubidean edo gozamenean eskaera egin aurreko bi urteetan.

Dena den, etxebizitzari buruzko araudian salbuespenak zehaztu dira etxebizitza premia hori egiaztatzeko betekizunari dagokionez. Hain zuzen ere, 2012ko urriaren 15eko aginduaren 9. artikuluan jasotakoak, eta kasu honi dagokionez, Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako etxebizitza arloan Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2006eko urriaren 4an emandako ekintza positiboaren neurriei buruzko aginduaren 7.4. artikuluan jasotakoa ere bai.

Hain zuzen ere, lehen aipatutako 7.4. artikuluan, *in fine*, salbuespen gisa ezarri da kasu zehatz hauetan etxebizitzarik ez izatearen betekizuna: *"Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren berariazko aginduaren bitartez"*¹.

¹Gaur egun, Etxebizitzako sailburuordeak du eskumen hori, apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuaren (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezarri zuena) 14.2 f) artikulua arabera.

4. Kexa-espedientean jasota dagoen dokumentazioa oinarri hartuta, Arartekoak egiaztatu du kexagileak 2013. urtean abiarazi zituela adostasunik gabeko dibortzioaren izapide judizialak. Hala eta guztiz ere, kexagileak gatazka bideratzeko erabakia hartu zuen, eta, horrela, 2014ko apirilaren 7an, bi aldeek hitzarmen arautzaile baten baldintzak adostu zituzten.

Horri dagokionez, hauxe jaso zen sinatutako hitzarmen arautzailearen laugarren estipulazioan:

- *“Los cónyuges acuerdan compartir el uso y disfrute del ajuar y del hogar conyugal sito en (...), de titularidad ganancial, puesto que ninguno de ellos dispone de medios para residir en otra vivienda, compartiendo ambos al 50% los gastos ordinarios y extraordinarios y los gastos por consumos.”*

Horrenbestez, aldi baterako lan prekarioak dituzte biak, eta horrek arazo ekonomiko larriak ekartzen dizkie, eta ezinezkoa izan da familia-egoitza ez den beste ostatu bat aurkitzea.

Hori guztia dela eta, senar-emazteen etxebizitzan elkarrekin bizitzea erabaki zuten.

5. Dena den, orain arte baketsua izan den bizikidetzak aldatu da familiaren barruan tratatu txarraren delitu egiaztatua gertatu baita. Hain zuzen ere, 2016ko urriaren 27ko erabaki judizialean adierazi zen delitua frogatu zela, eta genero-indarkeriaren biktimaren egiaztagiria eman zitzaiola kexagileari, non urtebeteko babes-agindu bat eman zen, 2017ko maiatzaren 7an hasi eta 2018ko maiatzaren 16an amaitzen zena.

Horri dagokionez, halaber, epaitegiak biktimarengana hurbiltzeko eta komunikazio-debekua ezarri zion kondenatuari, eta ezin zen harengandik edo bizi zen lekutik 40 metro baino gutxiagora egon.

6. Aurretik azaldutako guztia gorabehera, familia-etxebizitzan izandako bizikidetzaren ondorioz ezin izan zen babes-agindua bete, eta, beraz, kexagileak demanda bat jarri behar izan zuen urratu egin zelako.

Horrenbestez, zigor-arloko epaitegiak hurbiltzeko debekuaren distantzia handitu zuen, 500 metrora, bai etxebizitzatik, bai emakumea dagoen edozein tokitik, lanpostutik, ikasten duen lekutik edo sarritan egoten den lekuetatik. Gainera, emakumearekin komunikatzeko debekua ezarri zuen. Azken neurri horretarako ezarritako indarraldia bi urtekoa izan zen. Hain zuzen ere, 2017ko uztailaren 5etik 2019ko uztailaren 5era.

7. Azken finean, ezin zen familia-etxebizitzan bizi, zailtasunak zituen merkatu libreko etxebizitzak bilatzeko eta ez zituen diru-sarrera nahiko fidantza bat eta geroko errenta ordaintzeko; horrenbestez, kexagileak dagokion udalaren oinarritzko gizarte-zerbitzuetara joan behar izan zuen, erasotzailearen higiezin berean bizitzea ekiditeko beharrezkoa den laguntza lortzeko.



Horrenbestez, erasotzailearekin partekatzen zuen ezkontza-etxebizitza utzi ahal izateko prestazioak izapidetzen hasi zen kexagilea.

8. Horrela, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaeren gain, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko hainbat eskaera egin zituen kexagileak, 2018ko maiatzaren 23an eta 2018ko urriaren 10ean.

Bietan aurkeztu zituen etxebizitzaren egoera eta genero-indarkeriaren biktima zela egiaztatzeko dokumentazioa. Horrez gain, ezkontza-etxebizitza modu baketsuan erabiltzeko beharrezkoak ziren jarduketa judizialak abiarazi nahi zituela adierazi zuen. Edonola ere, egiaztatu egin zuen beste etxebizitza batean bizi zela errentamendu-erregimenean.

Azaldutakoa gorabehera, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak berriz eskatu zion hitzarmen arautzailearen baldintzak aldatu zirela esaten duen dokumentazioa aurkezteko.

Horri erantzute aldera, kexagileak Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi zion aldaketa horren ebazpen judiziala emateke zegoela, bai eta lortu bezain arin helaraziko ziela ere.

Kexagileak familia-etxebizitzaren erabilera eskusiboa berreskuratzeko abiarazitako prozeduraren erakusgarri da, hain zuzen ere, 2020ko otsailaren 18ko epaia, zeinak adierazten baitu, azkenean, higiezina erabiltzeko eskubidea duela eta bikotekide ohiak hura uzteko betebeharra duela.

Bien bitartean, ez da ahaztu behar kexagileak ezkontzako ez zen beste etxebizitza batean bizi behar izan zuela, eta behar bezala egiaztatu zuela etxebizitza behar zuela eta tratu txarrak jasan zituela.

9. Eskatutako dokumentazioa aurkezteari dagokionez, Arartekoak adierazi nahi du eztabaidatu gabeko egitate bat dela Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak une oro jakin zuela kexagilea genero-indarkeriaren biktima zela.

Arartekoaren iritziz, erasotzailearen etxebizitza berean bizitzeko ezintasun materiala behar bezala egiaztatu zen epai judiziala eta ezarritako babes-neurriak aurkeztuta. Era berean, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak jakin zuen kexagileak ezkontzako etxebizitzaren erabilera baketsua eskusiboki lortu nahi zuela. Horretarako, kexagileak demanda aurkeztu zuen 2014ko apirilaren 7an adostutako hitzarmen arautzailearen baldintzak aldatzeko.

Kexagilearen demanda ebazteko erabilitako epe judizialek soilik eragotzi zuten Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak bere idazkian eskatutako dokumentazio "osoa" aurkeztea. Gai hori ezin zaio egotzi, inola ere, dokumentazioa





aurkezteko orduan ardurarik ez izateari, eta bai, ordea, eskatu zen unean existitzen ez zen dokumentu baten errekerimenduari.

Azken batean, Arartekoaren ustez, kexagilearen berariazko inguruabarrak egiaztatzeko dokumentazioa hasieran aurkeztuta, behar bezala justifikatu zen etxebizitza-premia. Izan ere, gogora ekarri behar da, Auzitegi Gorenak Administrazioarekiko Auzien Salaren 1997ko uztailaren 7ko epaian emandako erabakiarekin bat etorritik, honako hau adierazten duela:

- *"...la Administración no puede arbitrariamente exigir cualquier documentación, sino aquella que sea indispensable para fijar los datos en base a los cuales ha de dictarse la resolución"*²

Esan bezala, dibortzio-hitzarmeneko neurrien dokumentazio "oso" aurkeztea, errekerimendu zehaztugabea eta zehaztugabea izateaz gain, ez zen materialki posible, neurri handi batean ebazpen judizialaren zain zegoelako, geroago ikusi den bezala, 2020ko otsailaren 18ko epaian.

Horregatik guztiagatik, eta kasu honen berariazko inguruabarrak kontuan hartuta, Arartekoaren iritziz, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak egiaztatu ahal izan zuen, aurkeztutako dokumentazioarekin, kexagileak alegatutako etxebizitza-premiaren egoera.

10. Testuinguru horretan, funtsezkoa da azpimarratzea zerbitzu publikoek, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eta laguntza emateko orduan, haien giza eskubideak defendatzea eta haien segurtasuna eta integritatea babestea.

Alde batera utzi gabe kasu honetan interesduna gai izatea bere egoera zailak gainditzeko eta bere bikotekide ohiarekin eta erasotzailearekin partekatzea behartuta zegoen familia-etxebizitzaren erabilera argitzera bideratutako lege-ekintzei ekiteko, administrazio publikoak beti izan beharko luke kontuan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek sentitzen duten beldurrak zaildu egiten dituela, baita blokeatu ere, erasotzailearen aurkako lege-ekintzak abiaraztea. Horrek ez du eragotzi behar emakume horiek zerbitzuetan artatu, lagundu eta babestu ahal izatea.

Emakume horiei laguntzeko bideratu daitezkeen zerbitzu eta prestazio publiko guztiei eragiten die horrek; ez bakarrik genero-indarkeriaren biktimak artatzeko prestazio eta zerbitzuei, herritar guztiei zuzenduriko zerbitzu eta prestazioei ere eragiten die, esate baterako gizarte-zerbitzuak eta etxebizitzari lotutako prestazioak.

11. Azaldutako guztia ikusita, lehenik eta behin, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren garrantzia azpimarratu behar da, Istanbulen egina 2011ko

² **Auzitegi Gorena.** Roj: STS 4804/1997. [ECLI:ES:TS:1997:4804](https://eur-lex.europa.eu/eli/es/ts/1997/4804).



maiatzaren 11n, eta Espainiak 2014ko apirilaren 10ean berretsia. Azkenean, 2014ko abuztuaren 1ean sartu zen indarrean.

Hain zuzen ere, Konstituzioaren 96. artikulua araberak, hitzarmen hori Espainiako ordenamendu juridikoaren parte bihurtu zen, eta ez zen beharrezkoa izango beste txertatze-egintzarik.

Zehazki, Istanbulgo hitzarmenak zenbait betebeharrak ematen ditu indarkeria prebenitzeko, biktimek babesteko eta laguntzeko. Horrela, zenbait irizpide ezartzen ditu, eta ezar daitezkeen neurriak horietan oinarritu beharko lirerateke. Zentzu zabalean, emakumearen eta bere seme-alaben inguruabarrak barne hartzen ditu, eta haien giza eskubideak eta segurtasuna aldeztuari lehentasuna ematen dio.

Horrez gain, aipaturiko tresnaren 18.4. artikuluan, besteak beste, honako hau eskatzen da:

- *"La prestación de servicios no debe depender de la voluntad de las víctimas de emprender acciones legales ni de testimoniar contra cualquier autor de delito".*

Illo horretatik, Arartekoak gogorarazi nahi du, Nazioarteko Tratatuen eta Bestelako Akordioaren azaroaren 27ko 25/2014 Legearen (aurrerantzean, 25/2014 Legea) 31. artikuluaekin bat etorriz, ordenamendu juridikoan txertatutako nazioarteko tratatuetan jasotako arauak lehentasuna dutela horiek kontraesanetan dauden beste edozein barne-arauren aldean, konstituzio-mailako arauen kasuan izan ezik. Era berean, 25/2014 Legearen 29. artikulua ezartzen du "*Estatuko botere publiko, organo eta organismo guztiek*" errespetatu behar dituztela indarrean dauden itunetako betebeharrak, eta behar bezala betetzen direla zaindu behar dutela. Hain zuzen ere, Auzitegi Konstituzionalaren ekainaren 20ko 87/2019 Epaia³, zazpigarren oinarri juridikoan, argitu du artikulua horrek ezarritako betebeharrak erkidegoetako agintariak ere lotzen dituela.

Azkenik, lege beraren 30.1 artikuluan ezarri da, arau orokor gisa, tratatuak zuzenean aplikatuko direla, salbu eta haren testutik ondorioztatzen bada beste araudi egoki bat onartzeak baldintzatzen duela tratatuen aplikazioa.

Zalantzarik gabe, zuzenean aplikatu behar da Istanbulgo Hitzarmenaren 18.4 artikulua, parte ez hartzeko betebeharrak ezartzen baitu (zerbitzuak ematea biktimek legezko ekintzak edo lekukotzak egiteko duten borondatearen mende ez jartzea), garapen-araudiaren beharrik gabe.

Horregatik guztiatik, estatuko eta autonomia-erkidegoetako botere publikoek nahitaez bete behar dute genero-indarkeriaren biktimek diren emakumeei eta haien seme-alabei arreta eta laguntza ematea, eta lehentasuna eman behar zaie haien

³ **Konstituzio Auzitegia**. Ekainaren 20ko 87/2019 Epaia. BOE, 177. zk., 2019ko uztailearen 25ekoa. [[ECLI:ES:TC:2019:87](#)]



giza eskubideen defentsari eta haien segurtasunaren babesari, arreta hori erasotzailearen aurkako lege-ekintzen hasieraren mende jarri gabe.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da kasu honetan ezin dela esan kexagileak genero-indarkeriaren biktima dela baliarazteko lege-ekintzei ekin ez zienik, ez eta erasotzailearekin batera etxebizitza erabiltzeari buruzko argitze judiziala eskatu ez zuenik ere, erasotzailea urruntzera behartzen zuen babes-aginduarekin koherentea izan zedin. Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak kontuan hartu ez izana babes-agindu horren edukia alde batera uztea baino gehiago da; izan ere, agindu horren helburua biktima erasotzailearengandik bereiztea zen, eta, beraz, ez da ezagutzen Istanbulgo Hitzarmenak ezarritako esparru juridikoa, genero-indarkeriaren biktimen giza eskubideen defentsa lehenestera behartzen baitu. Bestela esanda, 2016ko urriaren 27an judizialki emandako urruntze-agindua bera, urratzea egiaztatzearekin batera, etxebizitzaren erabilera erkidea ezinezkoa zela egiaztatzeko behar besteko dokumentu-euskarriztat hartu behar zituen administrazio jarduleak, 2014ko hitzarmen arauemailean esleitu bezala.

Ondorioz, Arartekoaren ustez, Istanbulgo Hitzarmenean xedatutakoa lehentasunez aplikatzeak berekin ekarri behar zuen, hain zuzen ere, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak babes-agindu hori lehenestea, bai eta biktimak salatutako urratzea kontuan hartzea ere, 2014ko hitzarmen arauemailean xedatutakoaren gainetik, interesdunaren etxebizitza-beharraren baldintza konfiguratzeko eta betetzat jotzeko orduan, eta, horrela, Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatu ahal izateko.

12. Bigarrenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 46.1. artikulua (aurrerantzean, 4/2005 Legea) honako xedapen hau jasotzen du, gizarteratze-eremuan berdintasun-printzipioa aplika dadin sustatzeko:

Euskal herri-agintek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.

Etxebizitzak esleitzeko orduan, euskal herri-administrazioek lehentasunezko tratua emango diete bazterkerian edo legeak aurreikusitako beharri-egoeran dauden emakumeei. Erregelamenduz zehaztuko dira horretarako baldintzak.

Lege-agindu horren arabera, botere publikoek berriazko neurriak hartu behar dituzte etxebizitzaren feminizazioaren arazoari aurre egiteko, ekintza positibo bidez eta oinarritzko eskubide sozialen gozamina sustatzeko neurri guztietan





generoa txertatuko duen ikuspegi baten bidez. Horrek, zalantzarik gabe, zuzenean eskatzen du botere publikoek arlo horretan konpromisoa hartzea.

Bestalde, 4/2005 Legearen erreformaren aurreproiektuak etxebizitzari buruzko 59. artikulua 1. atala aldatzea aurreikusten du, eta hala gertatuz gero, honela geldituko litzateke:

- *Euskal administrazio publikoek bermatu behar dute lehentasuna emango zaiela emakumeen kontrako edozein indarkeria matxista mota pairatzen duten biktima eta bizirauleei, baldin eta prekaritate ekonomikoan badaude indarkeriaren ondorioz edo etxebizitza bat izatea beharrezkoa denean haiek berreskuratzeko. Horretarako, elkarren artean koordinatuko dira eta baldintzen salbuespenak, erreserbak, zuzeneko esleipenak edo erregelamenduaren garapen egokiaren bidez zehaztuko diren bestelako neurriak ezarriko dituzte, desgaitasuna duten biktimen beharrak kontuan hartuta.*

Bestalde, gogorarazi beharra dago abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren (Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzkoa) zioen azalpenak haxe ezartzen duela:

- *“Botere publikoak ezin dira geldi egon genero-indarkeriaren aurrean, indarkeria horrek beste edozerk baino gehiago erasotzen baititu Espainiako Konstituzioak aldarrikatutako oinarrizko eskubideak, hala nola, askatasuna, berdintasuna, bizitza, segurtasuna eta bereizkeriarik eza”.*

2006ko urriaren 4ko Aginduaren bidez genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriak sartzeak ekarri zuen aurrerapena aitortzen du Arartekoak. Hala ere, ezin da ahaztu agindu horretan 2006. urtean ezarritakoa, azaldutakoaren ildotik eta giza eskubideen ikuspegitik, ere egokitu beharko litzatekeela administrazio publikoen jardunera.

Azken batean, aipatutako Istanbulgo Hitzarmenaren nagusitasunak berekin ekarri behar du hitzarmena nahitaez aplikatzea, eta, horrela, haren eraginkortasuna zabaldu behar da hura kontraesanean jartzen duen barne-araudiaren gainean.

13. Kasu honetan, 2006ko urriaren 4ko Aginduan jasotako arau-xedapenak ez dira nahikoak izan kexagileak “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan sartzeko aukera izan dezan, nahiz eta behar bezala egiaztatuta geratu ziren jasandako indarkeria-egoera eta ezarritako babes-agindua urratzea.

Ondorioz, Arartekoak gogorarazi nahi du Konstituzioaren 10.2 artikulua oinarrizko eskubideak interpretatzeko betebeharra ezartzen duela, Estatuak giza eskubideen arloan berretsitako nazioarteko tratatuekin bat etorriz.

Hain zuzen ere, Istanbulgo Hitzarmenaren 20.1 artikulua ezartzen du estatuek beharrezko legegintza-neurriak edo bestelakoak hartzeko betebeharra dutela,





genero-indarkeriaren biktimek jasandako indarkeriatik errekuperatzea erraztuko duten zerbitzuak izan ditzaten bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren iritziz, sailak funtsezko mekanismo arauemaileak izan behar ditu biktima horien osotasun fisiko eta moralerako oinarrizko eskubidea babesteko (Konstituzioaren 15. artikulua), etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistroarako sarbidea errazteko.

14. Laburbilduz, Arartekoak kexa-espeditente hau izapidetzean egiaztatu duenez, kexagileak egiaztatutako genero-indarkeriako egoera eta erasotzailearen etxebizitza berean bizitzearen ondoriozko egoera zaila gorabehera, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak erabaki zuen "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan alokairuko babes publikoko etxebizitza baten eskatzaile gisa inskribatzeko aukera ukatzea.

Horrenbestez, Lanbidek 3.803,33 euroko zenbatekoa itzultzeko eskatu du etxebizitzarako prestazio osagarri gisa, ez baitu behar bezala egiaztatzen "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan etenik gabe inskribatuta dagoela.

15. Aurreko guztiagatik, Arartekoaren iritziz, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak, bi inskripzio-eskaerak izapidetzean, jakin zuen kexagilea behartuta zegoela bere erasotzailearekin ezkontzako etxebizitza partekatzerara. Halaber, merkatu libreko errentamendu-erregimeneko etxebizitza batean bizi zela egiaztatu zuen. Azaldutako guztia gorabehera, uste zuen ez zuela behar bezala egiaztatu bere etxebizitza-premia.

Hala ere, espedientean jasotako dokumentazioa ikusita, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak behar bezala egiaztatu ahal izan zuen kexagileak eskatutako etxebizitza-premia, genero-indarkeriako egoera bat indarreko babes-agindu batekin egiaztatu zelako, eta agindu horrek, materialki, higiezin berean bizitzea eragozten zuelako. Gainera, ordezkariak egiaztatu ahal izan zuen kexaren sustatzaileak bere esku zeuden egintza judizialak egikaritu nahi zituela, higiezinaren erabilera eskusiboa lortzeko.

Horregatik, Arartekoaren ustez, kexaren sustatzaileak egindako eskaerei esker, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan behar bezala egiaztatu ahal izan zen etxebizitza-premiaren baldintza betetzen zela.

Are gehiago, azaldutakoa bezalako kasuetan, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak 2006ko urriaren 4ko Aginduaren 7.4 artikulua *in fine* edukiari buruzko informazioa eta orientazioa eman ahal izan zizkion kexagileari. Artikulu horrek inguruabar berezien azterketa xehatua ahalbidetuko zuen, Etxebizitza Sailburuordetzak etxebizitzarik ez izatearen betekizuna betetzearen balizko salbuespena baloratu zezan.





Hori guztia, kexaren sustatzaileak erasotzailea benetan bizi zen familia-etxebizitzara itzuli beharrik izan ez zezan.

Horregatik guztiagatik, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatzea ukatzeak kexagileari eragin dizkion ondorio larriak kontuan hartuta, Arartekoak uste du arreta handiagoa jarri behar izan zitzaiola kexagileak aurkeztutako dokumentazioa aztertzeari.

16. Horrenbestez, Arartekoak balioesten du kexagileak etxebizitza-premiaren baldintza betetzen zuela ondorioztatzeko behar zen egitatezko oinarria aurkeztuta geratu zela genero-indarkeriaren biktima zela egiaztatzen zuen dokumentazioarekin eta familia-etxebizitza erasotzailearekin partekatuzera behartzen zuen hitzarmen arautzailearekin.

Amaitzeko, Arartekoak duela gutxi jakin du etxebizitza-premiaren egoera hori otsailaren 18ko 4/2020 Epaia ondoen amaitu zela (4/2020 Epaia, emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegiarena). Funtsean, aipatutako erabaki judizialak ezkontideen etxebizitzaren erabilera eta gozamina eskusiboki esleitzen duelako irabazpidezko etxebizitzaren unitatearen likidazioa egin arte.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten da:

GOMENDIOA

Adierazitakoa aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak indargabetu dezala kexagileari "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan izena ematea ukatzen zion Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkararen erabakia.

Horrenbestez, pertsona horrek gainerako baldintzak betetzen baldin baditu, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak deklara dezala etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa alta emanda dagoela 2018ko maiatzaren 23tik 2020ko otsailaren 18ra.

